

# BILBOKO NOGARO ERAIKINAREN AKTIBAZIORAKO AZTERLANA, PROIEKTU ESTRATEGIKOEN BULEGOAREKIN EGINDAKO AKORDIOAREN ESPARRUAN

*Posted on 04/03/2026 by Naider*

**Category:** [Albisteak](#)

**Tags:** [Berraktibazio aukerak](#), [Elaboración de estudios técnicos](#), [Proiektu estrategikoak](#)

Naiderrek amaitu du **Bilboko Udaleko Proiektu Estrategikoen Bulegoarekin duen akordioaren esparruan garatutako lehen enkargua**, Ikerfel-en lankidetzarekin.

Akordio honen helburua da **udal proiektu estrategikoen definizioa, analisia eta garapena** babestea, erabaki publikoak hartzea eta hiri-ekimen berriak abian jartzea gidatuko duten azterlan eta dokumentu teknikoak eginez. Testuinguru honetan, Naiderrek analisi zorrotzak, lurralde-ezagutza eta ikerketa-metodologiak eskaintzen ditu, aukerak identifikatzeko, alternatibak ebaluatzeko eta etorkizuneko jarduketak oinarritzeko.

Lehen lana **Nogaro eraikinaren aktibazio eta berrerabilpen aukeren azterketan** oinarritu da, espazioaren potentziala eta Bilboko hiri- eta ekonomia-dinamikan izan dezakeen rola ulertzeko.

Proiektuak barne hartu du **sektore ekonomiko, jarduera-eredu eta zerbitzu-tipologia desberdinen analisi konparatiboa**, ezarpen-potentzial handiena duten eta hiriaren estrategiek inkerkatzen diren aukerak identifikatzeko. Halaber, **eskari potentzialaren analisia** egin da, etorkizuneko erabilerekin lotutako publikoen beharrak eta itxaropenak hobeto ulertzeko.

Lehen enkargu honek lan-ildo baten hasiera dakar, eta horri esker, Bilboko Udalarekin elkarlanean jarraitu ahal izango da **hirirako ekimen estrategikoen esplorazioan eta garapenean**, hiriko garapen urbano, ekonomiko eta sozialean eragin positiboa duten proiektuak bultzatuz.



Nogaro eraikinaren irudikapena, erabilera berriekin.

